

UDALEKO OBRA ETA ZERBITZUETAKO MANTENIMENDUKO BI PIOI LANPOSTU BETETZEKO DEIALDIA ARAUTUKO DUTEN OINARRIAK

1.- Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da Brigadan hutsik dauden bi mantenimenduko pioi lanpostu betetzea, lehiaketa-oposizio librean.

Lanpostua sailkapeneko E taldekoa da eta baloratu gabe dago.

Halaber 1. hizkuntza eskakizuna , ez derrigorrezkoa, du.

Lanegunak eta ordutegia Udalak urtean-urtean finkatutakoak izango dira, betiere lanpostuaren izaeraren eta zerbitzuaren premien arabera; adibide gisara Bergarako jaietan, San Martin jaietan, San Martzial jaietan, Erramu zapatuan eta horrelako jaietan antolatzen den egitarauak eskatzen duen langile-premiari erantzuteko lan egin beharko du, guztiak egutegian aurreikusiko direlarik.

2.- Betekizunak

Mantenimenduko pioi lanpostuaren betekizunak honako hauek dira:

- 1.- Arduradunarekin egunez egun harremanak izan lanak banatzeko eta hauen nondik norakoak zehazteko.
- 2.- Bide seinalizazioko elementuak (seinaleak, mugarriak...) kokatu, mantendu eta konponketa lanak burutu.
- 3.- Hiri altzarietako elementuak (eserlekuak, paperontzi...) kokatu, mantendu eta konponketa lanak burutu.
- 4.- Herriko hiri ordenamendu berrietan parte hartu, margoketa lanak burutu, hiri altzariak kokatu...
- 5.- Erabiltzen den makinaria, herraminta eta neurri laguntzaileen mantenu lanak burutu eta banatu.
- 6.- Era guztietako pintaketa lanak burutu, bide publikoetako elementuetan nahiz eraikin publikoetan.
- 7.- Taulatuak muntatu...
- 8.- Premien aurrean beste brigadetako langileak ordezkatu, e.a
- 9.- Obra eta Zerbitzuetako buruak edo dagokionak eta orokorrean,zerbitzuko arduradunek/teknikariek agindutakoa, bere lan mailari dagokionean.

3.- Izangaiek bete beharrekoak

Onartuak izateko eta, hala badagokie,neurketan parte hartzeko,ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte izangaiek:

- a) Europar Batasuneko kide diren estatuetakoren baten herritartasuna izatea edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunei jarraiki, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea. Parte hartu ahal izango du, era berean, Europar Batasuneko kide diren estatuetako herritarren ezkontideak, beti ere zuzenbideko banaketarik gabekoak badira; baita bere ondorengoak eta bere ezkontidearenak ere , baldin eta zuzenbideko banaketarik

gabekoak badira, eta ondorengo horiek hogeita bat (21) urte baino gutxiagoak badira, eta adin horretatik gorakoak, baina bere pentzuan bizi direnak.

Era berean, parte hartu ahal izango dute Espainiako estatuan bizi eta aurreko paragrafoetan sartu gabe daude atzerritarrek. Hauek aukeratuak izango balira, kontratuaren objektu den jarduera burutzeko administrazioaren baimena dutela probatu beharko dute, aipatutako kontratua egin baino lehen.

b) 16 urte beteta izatea.

c) Lanpostuaren berezko egitekoak behar bezala betetzea eragotziko dion gaixotasunik edo akats fisiko nahiz psikikorik ez izatea.

d) Diziplinazko prozeduraren bidez Administrazio Publikoetako erakundeen zerbitzutik bereizitakoa ez izatea, eta administrazio publikoan jarduteko gaitasunaz gabeturik ez egotea.

e) 1. Hizkuntza eskakizuna, ez derrigorrezkoa.

g) B motako gida baimena edo baliokide baten jabe izatea.

4.- Eskabideak

Eskabideak eredu ofizial eta normalizatuan egingo dira. Ereduak Bergarako Udaleko Erregistroko Bulegoan emango dituzte.

Lehiaketa-oposizioan parte hartzeko eskabideak Bergarako Udaleko Alkate-lehendakariari zuzenduko zaizkio, eta ondoko baldintza hauek bete beharko dira atzera bota ez daitezela:

a) Hirugarren oinarrian eskatutako baldintza bakoitza eta guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute izangaiek, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunari dagozkiola.

b) Eskabidearekin batera, ondoko agiriok erantsiko dituzte (fotokopiak konpultsatuak izango dira):

— Nortasun-agiriaren fotokopia.

— Deialdian parte hartzeko eskatutako tituluaren fotokopia.

— Eskabidean adierazitako merezimenduak egiaztatuko dituzten agiriak, lehiaketaren fasean baloratuak izateko.

Laneko esperientzia egiaztatu beharko da lan egindako enpresek edo Administrazioek egindako ziurtagirien bidez, bertan kontratuaren iraupena eta lanaren eginkizunak zehaztuz. Esparru pribatuko esperientzia egiaztatzeko, gainera, Gizarte Segurantzari kotizatu izanaren ziurtagiriak aurkeztu behar dira.

Eskabidean Bergarako Udalean egindako zerbitzuak eta laneko esperientzia, adierazi baditu, ez da agiri bidez egiaztatu beharrik izango, eta izangai bakoitzaren espedientean azaltzen diren datuen arabera baloratuko dira.

Prestakuntza osagarriari buruzko merezimendua egiaztatzeko aurkeztuko duen agirian, haren iraupena zehaztu beharko du. Horrela egin ezean, Epaimahaiaren esku geratuko da merezimendu hori baloratzea ala ez.

c) Izangaiek eskabideetan adierazi beharko dute oposizio-aldiko ariketak Euskal Autonomia Erkidego zein hizkuntza ofizialetan egin nahi dituzten.

Eskabideak, behar bezala beteta, Bergarako Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dituzte, deialdiaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasi eta hurrengo 20 egun laneguneko epearen barruan.

Eskabideak, era berean, azaroaren 26ko Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 legearen 38.4 artikuluan adierazi bezala, Administrazio Publikoetako erregistroetan ere aurkez daitezke. Bergarako Udaleko Alkate-lehendakari zuzenduko zaizkio, eta, eskabideak aurkezteko epearen barruan, dagokion funtzionarioak data eta zigilua jarrita eduki beharko dute. Izan ditzaketen egitatezko akatsak, edozein unetan zuzendu ahal izango dira, ofizioz edo interesatuak eskatuta.

5.- Izangaiak onartzea

Onartuen eta kanporatuen behin-behineko zerrenda Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta Bergarako Udaleko iragarki-taulan jarriko da ikusgai. Udalak 10 egun natureleko epea emango du erreklamazioak egiteko, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak 71. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Behin-behineko zerrenda, besterik gabe, behin betikotzat joko da erreklamaziorik ez badago. Halakorik badago, berriz, beste ebazpen baten bidez izango dira onartuak edo baztertuak. Ebazpen horren bidez, behin betiko zerrenda onetsiko du Udalak, eta hura ere adierazitako moduan argitaratuko du.

Azken erabaki horren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da Euskal Herriko Justiziako Auzitegi Nagusian, Administrazioarekiko Auzietarako salan; eta horretarako epea bi hilabetekoa izango da onartuen eta baztertuen zerrenda Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Hori, ordea, ez da eragozpen izango, inork bidezkotzat jotzen badu, beste edozein errekurtsu aurkez dezan.

Aldez aurretik eta hala nahi izanez gero, birjarpen-errekurtsua jarri ahal izango da hilabeteko epean.

6.- Epaimahaia

6.1. Osaera: Deituriko hautaketa prozesuaren epaimahai kalifikatzailea ondokoak kontuan izanda eratuko da: Langile Publikoen Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 60. artikuluan, ekainaren 7ko 896/91 Errege Dekretuaren 4. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 8/1989 Legearen 31. artikuluan ezarritakoa. Epaimahaia mahaiburuak, idazkariak eta deialdiak ezarriko kopuruaren araberrako kideek osatuko dute eta inoiz ez dira izango bost baino gutxiago. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko ordezkari batek eta langileen ordezkari batek hartuko dute parte epaimahaian. Epaimahaia osatzen duten titularren eta ordezkoen izen zerrenda Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaleko iragarki taulan argitaratuko da, onartuen eta baztertuen zerrendekin batera, behin alkatetza-lehendakaritzak izendatuta.

Udalan presentzia duten alderdi politikoaren ordezkariak parte har dezakete begirale moduan.

6.2. Espezialitatea: Epaimahaiaren eraketa teknikoa izango da batez ere, eta boto eskubidea duten kide guzti-guztiek izango dute deitutako lanpostuetarako eskatzen den titulu edo ikasketa maila berdina edo goragokoa, eta kideen erdiek gutxienez bete nahi den lanposturako eskatzen den ezagutza arloko titulazioa eta espezializazioa eduki beharko dute.

6.3. Abstentzia eta errefusatzea. Epaimahai kalifikatzailearen kideek ez dute esku hartuko eta alkate-lehendakariari jakinaraziko diote Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta AdministrazioProzedura Erkidearen 30/1992 Legearen 28. artikuluan oharmandako gorabeheraren bat egonez gero, eta izangaiek mahaikideak ezetsi ditzakete aipatu legearen 29. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita.

6.4. Aholkulariak: Aholkulari espezialistak egon ahal izango dira, egokiak iruditutako probak programatzeko edo ebaluatzen. Aholkulari horiek beren espezialitatearen arloan laguntza ematera mugatuko dira.

6.5. Eraketa eta lan egitaraua: Epaimahaia lehen proba egin aurretik eratu da. Eratze ekitaldian epaimahaiko kide titular edo ordezkari gehienek egon beharko dute. Era berean, ekitaldi horretan hautatze prozesuko egintza guztiak objektiboki eta era eraginkorrean antolatu, garatu eta ebaluatzen neurri guztiak hartuko dira.

6.6. Jarduketa prozedura: a) Epaimahaiaren jarduna, uneoro, Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak xedatutakoaren arabera izango da. Epaimahaia ezin osatu ahal izango da eta jardun ere ez, titularretako edo ordezkari diren kideetako hiru (3) behintzat bertan ez baldin badaude. Idazkaria kontuan hartu barik. Epaimahai kalifikatzailearen

erabakiak bertan dauden kideen gehiengoak aldeko botoa emanda hartuko dira; boto berdinketa egonez gero, epaimahaiaren lehendakariaren kalitatezko botoa erabiliko da berdinketa hausteko. Epaimahai kalifikatzaileko kide guztiek hitza eta botoa izango dute, idazkariak izan ezik. Idazkariak hitza baino ez du izango.

b) Epaimahaiak, hala behar izanez gero, arau hauek aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen zalantza guztiak ebatzi ahal izango ditu. Era berean, probak egiteko beharrezko diren moldaketa guztiak egin ahal izateko neurri egokienak hartuko ditu.

c) Epaimahaiak ezingo ditu deialdian iragarritako lanpostuen kopurua baino izangai gehiago hautatu. Betiere plaza horiek beteko direla ziurtatzeko xedez, hautatu diren izangai batzuk izendapena edo jabetza baino lehenago uko egiten badute, proposaturiko izangaieen ondorengo izangaiez osaturiko zerrenda osagarria eskatu ahal izango zaio epaimahaiari, izan ere, berauek karrerako funtzionario izendatu daitezke. Ariketa baztertzailerak gainditu dituztenak deitu diren lanpostuak baino gehiago badira, lanpostua bete ondoren kontratatu gabe gelditzen direnak antzeko lanpostuak aldi batez betetzeko erabiliko dira (lan poltsak).

d) Izangai batek ere gaindituko ez balitu baztertzailerak diren proba guztiak, lanpostua bete gabe geratuko da.

Ariketak epaituko dituen Epaimahaia kide titularrez eta ordezkoez osaturik egongo da, eta horien izendapena argitara emango da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki-taulan.

7.- Gaitasunaren faseko ariketak

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Bergarako Udaleko iragarki-taulan argitaratuko da lehenengo ariketa egiteko deialdia, eta han adieraziko da azterketa zein egun, ordu eta tokitan egingo den. Ondorengo deialdiak Epaimahaiak iragarriko ditu, aditzera emateko egoki deritzon moduan.

Gaitasunaren fasean ondoko ariketa hauek egingo dira:

— Lehen ariketa: Derrigorrezkoa eta baztertzailerak.

Ariketa hau bi frogek osatuko dute:

1. Proba teorikoa. Lehen eranskinean jasotako gaiak edota lanpostuaren eginkizunekin zerikusia duten egin galderei erantzun beharko zaie. Epaimahaiak erabakiko du izangaiek erantzun beharrekoak, test moduko izango den, eta nola puntuatuko den.

Proba honetan, gehienez ere, **10 puntu** lortu ahal izango dira.

2. Aritmetika frogaldia: Epaimahaiak egoki iritzitako denboran aritmetika kalkulu errazeko galdetegi bati erantzun beharko zaie. Erantzun anitzekoa baina horietako bat zuzena izango da.

Proba honetan, gehienez ere, **5 puntu** lortu ahal izango dira

Ariketa hau pasatu ahal izateko derrigorrezkoa izango da proba bakoitzaren puntuazioaren %50a ateratzea.

— Bigarren ariketa: Derrigorrezkoa eta baztertzaila.

Proba praktikoa izango da: Lanpostuaren eginkizunekin zerikusia duen(ten) proba(k) egin beharko dituzte, proba hauek izan daitezke beste batzuen artean ere igeltserotza, elektrizitate eta pintura espezialitateekin zerikusia dutenak.

Proba honetan, gehienez ere, **20 puntu** lortu ahal izango dira eta gainditzeko derrigorrezkoa izango da gutxienez 10 puntu ateratzea

8.- Merezimenduen fasea

Epaimahaiak ondoko merezimendu hauek balioztatuko ditu, baldin eta, laugarren oinarriko b) atalean xedatutakoaren arabera, eskabidean adieraziak eta agiri bidez egiaztatuak izan badira, eta, betiere, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna kontuan hartuz:

- Lanpostuaren eginkizunekin zerikusia izanik pioi kategoriarekin egindako lana: gehienez ere 4 puntu arte, hileko 0,15 puntu.
- Lanpostuaren eginkizunekin zerikusia izanik Ofizial kategoriarekin egindako lana: gehienez ere 4 puntu arte, hileko 0,10 puntu

Merezimendu horiek laugarren oinarriak jasotakoari jarraituz egiaztatu beharko dira.

— Erakunde ofizialek edo haiek homologatutakoek emandako ikastaroak edo mintegiak egitea, eta bestelako prestakuntza-jarduerak egitea (bekadun gisa, praktikaldian, etab.), lanpostuarekin zerikusirik badute, gehienez ere 3 puntu arte balioztatuko da. Ikastaroek gutxienez 20 orduko iraupena izan beharko dute kontuan hartzeko, 20 ordukoari 0,10 puntu emango zaio eta hortik gorakoak proportzionalki puntuatuko dira.

— Lehen hizkuntza eskakizunari dagokion euskara maila izatea: 5 puntu.

Ezaguera hau egiaztatu ahal izango da Epaimahaiak proposaturiko idatzizko eta ahozko proben bitartez. "Gai" edo "ez-gai" kalifikatuko da.

Ez dute frogatzen hau egin beharrik izango ziurtatzen dutenak 1. hizkuntza eskakizunarekin parekatutako agiriren baten jabe direla, betiere, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateria egokitze apirilaren 8ko 64/2008 Dekretuak jasotakoaren arabera.

9.- Gaitasunaren fasea garatzeko era

Epaimahaiak, hala erabakiz gero, alda dezake zazpigarren oinarrian adierazitako ariketen hurrenkera, eta egun berean proba bat edo biak egitea ere erabaki dezake.

Epaimahaiak ariketak egiteko deialdian jarritako egunean, lekuan eta orduan agertzen ez diren izangaiak, baita ezinbesteko arrazoiengatik bada ere, hauta prozesutik kanpo geratuko dira erabat.

Gainditu beharreko ariketa bakoitza burutu ondoren, Epaimahaiaren erabakiz, iragarki taulan emango da argitara ariketa gainditu dituzten izangaien zerrenda.

10.- Epaimahaiaren proposamena

Izangai bakoitzak bi faseetan lortu dituen puntuak batuta aterako da haren azken kalifikazioa, eta batura horrek erabakiko du izangaiak lehenesteko hurrenkera.

Puntuetan berdintasuna gertatuz gero, ondoko irizpide hauen arabera ebatziko da, jarrita dauden hurrenkeran:

- a) Proba praktikoetan puntu-kopururik handiena ateratzea.
- b) Teoria proban puntu-kopururik handiena ateratzea.
- c) Epaimahaiak erabakitzen duen irizpidea.

Ariketak balioztatu ondoren, Epaimahaiak iragarki-taulan agerian jarriko ditu neurketa gaingitu duten izangaien izenak, lortu dituzten puntuaren arabera hurrenkeran antolatuak: puntu gehienekotik gutxienera.

Era berean, hautatutako izangaiaren izena argitaratuko du.

Epaimahaiaren iritziz deialdira aurkeztutako izangaien artean ez badago lanpostua betetzeko gutxienezko baldintzak betetzen dituenik, lanpostua bete gabe aldarrika dezake.

Epaimahaiak ezingo du, inolaz ere, deialdiko lanpostua baino izangai gehiago proposatu.

Epaimahaiak Bergarako Udaleko organo eskudunari igorriko dio akta, behar den kontratazioa egin dezan.

Proposatua izan diren izangaiek, izendapena argitara ematen denetik hasi eta 20 egun naturaleko epean, lehiaketan parte hartzeko oinarrietan eskatzen diren baldintzak betetzen ditzela egiaztatzen duten jatorrizko agiriak aurkeztuko dituzte.

Ezarritako epean, eta ezinbesteko arrazoiren batengatik izan ezean, izangaiek agiriak aurkezten ez badituzte, edo eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen ez badute, ezingo dira kontratatuak izan, eta bere jardun guztiak baliorik gabe geratuko dira. Kasu horretan, lehiaketa gaingitu eta azken kalifikazioaren hurrenkeran ondoren dagoenaren edo daudenen aldeko proposamena egingo du organo eskudunak.

11.- Kontratazioa-Praktikaldia

Alkate-udalburuak epaimahaiak proposaturiko izangaiei kontratu finkoa egingo die, legeak aurreikusitako frogaldia izango dutelarik, hau da bi hilabetekoa.

Frogaldi honek hautaketa prozesuaren atal baten izaera izango du eta azken balorazioa gai/ez-gai izango da; udal iragarki Taulan argitaratuko da.

Epe hori amaitu aurretik, dagokion arduradunak langileak egindako lanari buruzko txostena egingo du, eta erakutsi dituen gaitasunak hartuko ditu kontuan txosten horretan:

- lanerako ahalmena eta errendimendu profesionala, erantzukizunaren eta eraginkortasunaren zentzua, lanerako prestasuna eta ekimena, eta lanarekiko interesa.
- lan-taldera moldatzeko erakutsi duen gaitasuna ere hartuko da kontuan.

Behin behineko ezgaitasun egoerak, amatasunak, aitatasun lizentziak eta adopzioa edo harreran hartzeak frogaldian emango balira honen zenbaketa eteten du

Behin betiko kontratua egin aurretik enpresa-medikuaren ikuskapena pasatu beharko du, bere osasun egoera ona dela eta lanpostuaren eginkizunak betetzeko gai dela egiaztatzeko.

12. Lan-Poltsa

Lanpostua eskuratu ez, baina oposizioa gainditzen duten hautagaiekin mantenimenduko pioien lan-poltsa osatuko da.

Lan-poltsak, onartzen denetik kontaktzen hasita, urtebeteko balioa izango du, urtez urte eta gehienez ere beste lau urtez luzatu ahal izango delarik, Gobernazio eta Zerbitzuen Batzordearen proposamenari jarraituz, Alkate-Lehendakariak horrela erabakiko balu.

Lan poltsaren funtzionamendua Udalak 2006ko apirilaren 4an Alkatearen dekretu bidez onartua duen lan poltsen erabilerarako barne araudiak jasotzen duena izango da (eranskin gisara dago jasota).

13.- Dokumentazioa Itzultzea

Instantziarekin batera aurkeztu den dokumentazioa jasotzeko eskubidea izango dute aurkeztu diren izangaiek, kontratatuko direnek eta lan-poltsarako izendatuko direnek izan ezik.

Hautaketa prozesua bukatu eta 3 hilabeteko epean jasotzen ez den dokumentazioa txikitu eta bota egingo du Udalak.

14.- Prozesuaren Argitalpenak.-

Prozesu honetan argitaratu beharrekoak (onartuen eta baztertuen zerrenda, oposizioaldiko emaitzak, lehiaketaldiaren emaitzak...) Bergarako Udaleko Web orrian ere argitaratuko dira(www.bergara.net).

Datu pertsonalen babeserako araudiari jarraituz, edozein izangai edo partehartzailek izango du bere datuak eskuratu, zuzendu edo ezabatzeko eskubidea; horretarako eskaera aurkeztu beharko du helbide honetara bidalitako idatziaren bitartez: Bergarako Udala, San Martin de Agirre plaza 1, 20570 Bergara.

15. Gorabeherak.

Epaimahai kalifikatzailea eskuetsirik dago sor daitezkeen zalantzak argitzeko eta lehiaketa-oposizioaren jarduera ona zaintzeko beharrezko diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan eta aplikazio osagarriko legedian xedatu ez diren kasuetarako.

16. Inpugnazioa.

Interesdunek oinarri hauen aurka egin dezakete –inpugnatu–, indarrean dagoen Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako epe eta moduan.

I. ERANSKINA

1. Igeltserotza: Oinarrizko elementuak eta nozioak. Igeltserotzako erremintak eta materialak zeintzuk diren jakitea: trebetasuna, manejoa eta horien mantentze-lanak.
2. Iturgintza: Oinarrizko elementuak eta nozioak. Iturgintzako erremintak eta materialak zeintzuk diren jakitea: trebetasuna, manejoa eta horien mantentze-lanak.
3. Pinturako oinarriak. Materialak: brotxak, arrabolak, aplikagailuak, hortzak eta harraskagailuak. Isolatzeko materiala.
4. Bide seinalizazioa: motak eta ezaugarriak.
5. Laneko arriskuen prebentzioa: kontzeptuak. Osasuna. Laneko arriskua. Laneko baldintzak. Arrisku faktoreak. Prebentzio teknikak. Lanbidearen kalteak. Laneko arriskuak. Segurtasun baldintzak. Lan zama eta nekea. Ingurumen lanean. Prebentzio teknikak. Seinaleak. Larrialdiko plana.
6. Pinturaren aglutinatzaile, garraiatzaile eta pigmentuak.
 - 1) Pintura industrialak edo komertzialaren helburu orokorra.
 - 2) Ezagupen teknikoak.
7. Kolorea.
 - Kolorea existitzeko beharrezko faktoreak.
 - Zirkulu kromatikoa.
 - Kolorearen dimentsioak.
 - Koloreen nahasketa.
 - Kolorearen psikologia.
 - Kolorearen mugimenduak (opakueta)
 - Koloreen arteko erlazioa eta kolorearen dinamika.
 - Hodiak seinalizatzeko koloreak.
 - Materialak.
8. Pintura.
 - Inprimaketak eta latexa
 - Produktu bereziak.
 - Estaldurak, oreak, plastikozko zarpeatuak eta marmol-hautsak
 - Sailkapena osaketaren arabera.
 - Estukoa
9. Erremintak.
 - Prestaketarako erremintak
10. Euskarriak
 - Igeltsua, eskaiola eta eratorriak
 - Porlana eta bere eratorriak
 - Adreiluak.

- Egurra.
- Metalak.
- Plastikoak.
- Euskarrien prestaketa eta amaiera pintura mota desberdinekin.
 - tirolesa. Osaketa, prestaketa eta aplikazioa.
 - tenple-pinturaren osaketa eta aplikazioa.
 - pintura plastikoak.
 - paramentu berriak prestatzea tenple-pintura aplikatzeko.
 - kareaz eginiko paramentu zaharrak prestatzea tenple-pintura aplikatzeko.
 - paramentu berriak prestatzea pintura plastikoa aplikatzeko.
 - kareaz eginiko paramentu zaharrak prestatzea pintura plastikoa aplikatzeko.
 - paramentuak prestatzea fantasiako orea aplikatzeko.
 - olio-pinturaz margotutako paramentuak eta sabaiak prestatzea pintura plastikoa aplikatzeko.
 - tenple-pinturaz margotutako paramentu zaharrak prestatzea pintura plastikoa aplikatzeko.
 - pintura plastikoaz margotutako paramentuak edo sabaiak prestatzea olio-pintura aplikatzeko.
 - fantasiako oreaz egindako paramentuak prestatzea pintura plastikoa aplikatzeko.
 - osaketa, prestaketa eta aplikazioa.
 - kare-pintura.
 - egurrezko azalerak eta ate zaharrak prestatzea olio-pintura edo berniza aplikatzeko.
 - egurra prestatzea olio-esmaltea aplikatzeko, barrualdeetan
 - egurra prestatzea olio-esmaltea aplikatzeko, kanpoaldeetan
 - egurrak prestatzea berniza aplikatzeko, barrualdeetan
 - egurra prestatzea berniza aplikatzeko, kanpoaldeetan
 - azalera metaliko eta burdineria berriak prestatzea olio-pintura aplikatzeko.
 - azalera metaliko eta burdineria zaharrak prestatzea olio-pintura aplikatzeko.
 - linazi-oliozko pintura
 - olio-pintura distira gabe pikatua
 - gaztainondo egurraren imitazioa.
 - haritz egurraren imitazioa.

11. Pintatzeko teknikak

- purpurinak nola aplikatu